Zirkularra, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak aurrerantzean itzuliko edo berrikusiko dituen testuei buruzkoa

HELBURUA

Zirkular honen helburua da IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (aurrerantzean, IZO) jasotzen dituen lanen artean zeintzuk egingo dituen zehaztea.

OINARRIAK

Eusko Jaurlaritzako sailei eta organismo autonomoei eman behar die zerbitzua IZOk, bere dekretuen arabera[1]:

> *Dekretu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan euskaratik gaztelaniara eta gaztelaniatik euskarara itzulpenak egiteko dauden itzulpen-zerbitzuak zentralizatzea.*

IZO eratu zuen Dekretuaren[2] 2. artikuluak eskumenak ematen dizkio itzulpen-zerbitzuari, baldintzak ezar ditzan lanak hartzekotan:

> *Itzulpen edo interpretaritza-lana eska dezanak, lana egiteko egoki deritzon epe eta aurkezterak adieraziko ditu eta Itzulpen-Zerbitzu Ofizialak, lana bere gain hartzerakoan, hala bada, diru, epe eta beste edozein eratako baldintzak eskainiko ditu lana burutzeko.*

Bestalde, administrazioan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideetan[3] jasotako itzulpen-irizpideak aplikatzen ditu IZOk:

> *EAEko Sektore Publikoak, barneko jarduketetan, era arrazionalizatuan erabiliko ditu itzulpengintza- eta interpretazio-zerbitzuak.*
>
> *EAEko Sektore Publikoak ez du sistematikoki joko Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialera (IZO) idatzi bat bi hizkuntza ofizialetan egin behar duten bakoitzean.*

[1] 48/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematen duena. 1. artikulua.
[2] 262/1989 Dekretua, azaroaren 7koa, Euskal Autonomi Elkarteko Itzulpen-Zerbitzu Ofiziala Sortarazi eta Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Ihardute-Egitura aldatzen duena.
[3] Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak honen bidez argitaratu ziren: 62/2023 Ebazpena, ekainaren 16koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta hari atxikitako sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak onartzen dituen erabakia (2.2.5. Sortze-hizkuntza. Itzulpen-irizpideak).

#EUSKADIBERRIA
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T8AAH-K0AM
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
SINATZAILE / FIRMANTE: LEIRE CORRALES GOTI | 2026/06/12 12:25:32

Hemendik aurrera, IZOk bere itzulpenetarako irizpideetan jasotako dokumentuak baino ez dira itzuliko. Horrenbestez, EAEko Sektore Publikoan, irizpide horiek betetzen dituzten testuak bakarrik bidaliko dira IZOra.

EAEko Sektore Publikoan sortutako beste dokumentazio guztia erakundeen erantzukizuna da, eta beraz, horiei dagokie ele bietan jartzea, IZOra jo gabe.

APLIKAZIO-EREMUA

Irizpide hauek IZOra jotzen duten erakunde guztiei eragingo diete.

IRIZPIDEAK

a) Aurrerantzean, eskatzaile hauei emango die zerbitzua IZOk:

- EAEko administrazio orokorreko sail eta organismo autonomoei (hurrengo b) atalean zehaztutako testuak lantzeko).

Eta ez beste hauei (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko testuak ez badira).

- Udalei eta foru-aldundiei
- Zuzenbide pribatuko ente publikoei
- Fundazioei
- Sozietate publikoei
- Partzuergoei
- Administrazio-agintaritza independenteei

b) Aurrerantzean, honako dokumentu hauek itzuliko edo berrikusiko ditu IZOk:

- EHAAn argitaratzekoak direnak
- EAEko lege- eta arau-xedapenak, bai eta haiei lotutako txostenak ere (herritarrek eskatuz gero)[4]
- Espainiako lege-xedapenak (Estatuko Aldizkari Ofiziala)
- Europar Batasuneko arau-ondarea
- Enplegu publikorako eskaintzetako azterketak (IVAPek prestatutakoak) eta hitzartutako azterketak

[4] 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena. 24.4 artikulua.

Eta ez beste hauek:

- Gutunak
- Aktak
- Aldizkarietako artikuluak
- Sail edo erakunde bakoitzeko barneko planak
- Sail edo erakunde bakoitzeko barneko txostenak
- Kontratatutako enpresei agindutako dokumentuak: azterketak, txostenak, ikastaroak, planak…[5].
- Gidaliburuak
- Aplikazioak, web-orriak
- Liburuak
- Esloganak
- Ebaluatzekoak diren testuak

ONDORIOAK

Hemen adierazitakoak 2026ko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

Leire Corrales Goti

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendaria

[5] 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa. 13.3 artikulua (Azterlanak, txostenak, proiektuak edo antzeko lanak egitea xede duten kontratuen kasuan, kontratazio-prozedura arautzen duten baldintza-agirietan, azterlan, txosten edo lan horiek hizkuntza bietan idatzi daitezela ezarri ahal izango du kontratazio-organoak, salbu eta, kontratuaren objektuaren xedeagatik hizkuntza ofizial bakarrean idaztea eskatzen bada).

Circular de la directora del Instituto Vasco de Administración Pública sobre los textos que el Servicio Oficial de Traductores traducirá o revisará en lo sucesivo.

OBJETIVO

El objeto de la presente circular es determinar cuáles de los trabajos que recibe actualmente el Servicio Oficial de Traducción del IVAP (en adelante, IZO) va a aceptar en lo sucesivo.

FUNDAMENTOS

El IZO debe dar servicio a los Departamentos y Organismos Autónomos del Gobierno Vasco según sus Decretos:[6]

> *El objeto de este Decreto es la centralización de los servicios de traducción existentes para la realización de traducciones del euskera al castellano y del castellano al euskera en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en sus organismos autónomos*.

El artículo 2 del Decreto por el que se crea el IZO atribuye competencias al servicio de traducción para establecer los requisitos que estime oportunas para prestar sus servicios:[7]

> *La persona que solicite un trabajo de traducción o interpretación hará constar el plazo y las condiciones de presentación que considere oportunos para la realización del mismo, y el Servicio Oficial de Traducción, al asumir el encargo, podrá fijar, en su caso, las condiciones económicas, de plazo y cualesquiera otras necesarias para su ejecución.*

Por otra parte, el IZO aplica los criterios de traducción recogidos en los Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales en la Administración, que indican lo siguiente:[8]

---

[6]Decreto 48/2012, de 3 de abril, por el que se determina la centralización de los servicios transversales de traducción de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos. Artículo 1.

[7]Decreto 262/1989, de 7 de noviembre, por el que se crea el Servicio Oficial de Traductores de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se modifica la estructura funcional del Instituto Vasco de Administración Pública.

[8]Los criterios de uso de las lenguas oficiales se publicaron en la Resolución 62/2023, de 16 de junio, del director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo por el que se aprueban los criterios de uso de las lenguas oficiales en la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y en el resto de las entidades que conforman el sector público adscrito a la misma (2.2.5. Lengua de creación. Criterios de traducción).

El Sector Público de la CAE hará un uso racional de los servicios de traducción e interpretación en sus actuaciones internas.

El Sector Público de la CAE no recurrirá sistemáticamente al Servicio Oficial de Traducción (IZO) cada vez que tengan que redactar un escrito en las dos lenguas oficiales.

En adelante, solo se traducirán los documentos que el IZO haya incluido en sus criterios de traducción, por lo tanto, siempre que se tenga que traducir un texto de ese tipo en el Sector Público de la CAE deberá ser remitido al IZO.

El resto de la documentación generada en el Sector Público de la CAE es responsabilidad de este y, por tanto, le corresponde a él proporcionarla en ambas lenguas sin necesidad de recurrir al IZO. Para facilitar esta labor, todo el personal tendrá acceso a los traductores neuronales

ÁMBITO DE APLICACIÓN

Los siguientes criterios afectarán a todas las entidades que soliciten servicios al IZO.

CRITERIOS

a) En adelante, el IZO prestará sus servicios a los siguientes solicitantes:

- A los Departamentos y Organismos Autónomos de la Administración General de la CAE (siempre y cuando se trate de textos detallados en el apartado b) siguiente).

Y no a los siguientes solicitantes (salvo cuando se trate de textos para publicar en el Boletín Oficial del País Vasco).

- Ayuntamientos y Diputaciones
- Entes públicos de derecho privado
- Fundaciones
- Sociedades públicas
- Consorcios
- Autoridades administrativas independientes

b) En adelante, el IZO traducirá/revisará los siguientes documentos:

- Los que deban ser publicados en el BOPV
- Las disposiciones legales y reglamentarias de la CAPV, así como los informes relacionados con las mismas (a petición de la ciudadanía)[9]
- Las disposiciones legales españolas (Boletín Oficial del Estado)
- El acquis normativo de la Unión Europea
- Los exámenes de las ofertas públicas de empleo (elaborados por el IVAP) y los regulados por convenio

Y no los siguientes:

- Cartas
- Actas
- Artículos de revistas
- Planes internos de cada departamento u organismo
- Informes internos de cada Departamento u organismo
- Documentos encargados a empresas contratadas: estudios, informes, cursos, planes...[10]
- Guías
- Aplicaciones, páginas web
- Libros
- Eslóganes
- Textos que vayan a ser sometidos a evaluación

CONCLUSIONES

Lo anteriormente expuesto surtirá efectos a partir del 1 de septiembre de 2026.

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica.

Leire Corrales Goti

Directora del Instituto Vasco de Administración Pública

[9]Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General. Artículo 24.4.

[10]Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco. Artículo 13.3 (En el caso de contratos que tengan por objeto la realización de estudios, informes, proyectos u otros trabajos de similar naturaleza, el órgano de contratación podrá establecer en los pliegos que rigen el procedimiento de contratación que dichos estudios, informes o trabajos sean redactados en ambas lenguas, salvo que, atendida la finalidad del contrato, se requiera su redacción en una única lengua oficial).